

Esportazioen prezioak % 2,1 gehitu ziren 2020ko laugarren hiruhilekoan

Inportazioen kasuan, prezioak % 2,6 gehitu ziren

Esportazioen prezioak % 2,1 igo dira 2020ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereiziz gero, prezio energetikoak % 5,4 igo ziren, eta esportazio ez-energetikoenak % 1,9.

Inportazioetan ere prezioen aldakuntza positiboa izan zen aurreko hiruhilekoaren aldean, % 2,6koa. Produktuen arabera bereiziz gero, energetikoeak % 0,6 egin dute behera, eta ez-energetikoeak % 3,5 egin dute gora.

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, xede ekonomikoa aintzat hartuta (%). IV/2020 (b)

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	2,1	-0,1	2,6	-6,9
Produktu energetikoak	5,4	-3,6	-0,6	-21,6
Produktu ez-energetikoak	1,9	-0,3	3,5	-2,1
Kontsumo-ondasunak	-0,6	-0,7	2,9	2,2
Kapital-ondasunak	8,2	-1,5	-4,5	-11,6
Bitarteko-ondasunak	1,1	0,7	3,3	-7,2

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta eta **ondasunen helburu ekonomikoaren arabera** **sailkapena** kontuan hartuta, Kapital Ondasunen prezioak (hau da, bitarteko ondasunak kontsumo-ondasun bihurtzeko aukera ematen duten ondasunenak) % 8,2 igo ziren, Bitarteko Ondasunenak % 1,1 igo ziren, eta Kontsumo Ondasunenak % 0,6 jaitsi ziren. Inportazioen kasuan, Kapital Ondasunen prezioak % 4,5 jaitsi ziren; aldiz, Bitarteko Ondasunenak % 3,3 eta Kontsumo Ondasunenak % 2,9 igo ziren.

Esportazioen xede diren **eremu geografikoak** kontuan hartuta, 2020ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, prezioek gora egin zuten eremu guztietan, bai Euro eremuan (% 2,0), bai EB-28an (% 1,4), ELGAN (% 1,0) eta, batez ere, Munduko gainerakoan (% 7,1). Inportazioetan ere hiruhileko batetik bestera prezioak gehitu egin ziren eremu geografiko guztietan, eta horien artean aipatu Munduko gainerakoa nabarmendu zen (% 7,8).

Euskal AEko kanpo merkataritzaren Unitate Balioaren Indizeak, ekonomikoak-eremua aintzat hartuta (%). IV/2020 (b)

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
Indize orokorra	2,1	-0,1	2,6	-6,9
Euro eremua	2,0	-0,6	4,4	-3,0
EB-28	1,4	-0,4	3,3	-2,5
ELGE	1,0	0,8	0,5	-4,4
Munduko gainerakoa	7,1	-5,2	7,8	-13,2

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean esportazioen prezioak % 0,1 jaitsi ziren, eta inportazioenak are gehiago, % 6,9.


Esportazio energetikoen prezioak % 3,6 jaitsi ziren, eta ez-energetikoenak % 0,3, 2019ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Inportazioen kasuan, prezioen jaitsiera % 21,6koa izan zen produktu energetikoetan eta % 2,1ekoa ez-energetikoetan.

Helburu ekonomikoaren arabera eta esportazioetarako, ikusten da ezen Kontsumo Ondasunak, kontsumitzaileak produkzio-prozesuaren azken produktu gisa zuzenean erabiltzen dituenak alegia, urte arteko % 0,7 jaitsi zirela; Kapital Ondasunak, berriz, % 1,5 jaitsi ziren, eta Bitarteko Ondasunak, aldiz, % 0,7 igo ziren.

Inportazioei dagokienez, Kontsumo Ondasunen prezioek urte arteko % 2,2ko hazkundera izan zuten, baina Bitarteko Ondasunen prezioak % 7,2 jaitsi ziren, eta Kapital Ondasunenak % 11,6.

Bestalde, ikusi da esportazioen prezioek gora egin dutela ELGAn (% 0,8) aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, baina Munduko gainerakoan % 5,2 jaitsi direla, Euro eremuan % 0,6 eta EB-28an % 0,4. Beherakada hori, inportazioen kasuan, eremu geografiko guztietara zabaldu da, eta batez ere Euro eremuan nabarmendu da, % 13,2ko jaitsierarekin.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

URTEKO BALANTZEA

2020an, esportazioen prezioak % 0,2 jaitsi dira aurreko urtearekin alderatuta, eta inportazioen kasuan jaitsiera % 4,7koa izan da.

Produktu energetikoen izan dituzte jaitsierarik handienak prezioetan, bai esportazioetan (-% 9,2), bai inportazioetan (-% 17,0). Produktu ez-energetikoen inportazioen prezioek ere behera egin dute, baina era neurritsuagoan, % 1,1; ez-energetikoen esportazioak, berriz, % 0,3 igo dira.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, xede ekonomikoaren arabera. Urteko aldakuntza-tasak (%). 2020 (b)

	ESPORTAZIOAK	IMPORTAZIOAK
	2020/2019	2020/2019
Indize orokorra	-0,2	-4,7
Produktu energetikoak	-9,2	-17,0
Produktu ez-energetikoak	0,3	-1,1
Kontsumo-ondasunak	3,8	3,5
Kapital-ondasunak	-4,3	-5,7
Bitarteko-ondasunak	0,1	-5,4

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapena kontuan hartuta, esportazioetan Kontsumo Ondasunen prezioak % 3,8 igo dira, eta, neurri txikiagoan, Bitarteko Ondasunenak, % 0,1. Kapital Ondasunen esportazioen prezioek, aldiz, % 4,3 egin dute behera. Inportazioen kasuan eta ondasun mota horrentzat, jaitsiera % 5,7koa izan da, Bitarteko Ondasunek izandakotik hurbil (% 5,4). Kontsumo Ondasunak dira bakarrak zeinen inportazioetan prezioek gora egin duten, zehazki % 3,5.

Esportazioen kasuan, eremu geografikoetan prezioen igoerarik handiena ELGak izan du (% 1,2), baita EB-28ak ere, nahiz eta maila txikiagoan izan (% 0,4). Inportazioei dagokienez, kontuan hartutako eremu geografiko guztietan prezioek behera egin dutela ikusi da, eta nabarmentzekoa da Munduko gainerakoaren beherakada (% 14,0).

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren balio unitarioaren indizeak, arlo ekonomikoen arabera (%). 2020 (b)

	ESPORTAZIOAK	IMPORTAZIOAK
	2020/2019	2020/2019
Indize orokorra	-0,2	-4,7
Euro eremua	-0,3	-1,7
EB-28	0,4	-1,0
ELGE	1,2	-0,5
Munduko gainerakoa	-7,8	-14,0

(b) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62